



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktuaren banaketa eta komunikazio-kanalak funtsezkoak dira bezeroarengana iristeko eta balio-proposamena modu eraginkorrean helarazteko. Gure sistema teknologikoa eta espezializatua denez, kanal egokiak berebiziko garrantzia dauka. Konfidantza, segurtasuna eta profesionaltasuna transmititu dezan gure produktuak.

Gure produktuan hainbat kanal bereizi ditugu: komunikazio-kanalak, salmenta-kanalak eta banaketa-kanalak. Kanal hauek guztiek elkar osatzen dute, bezeroak produktua ezagutzeko, ebaluatzeko, jasotzeko eta ondorengo zerbitzuak jaso dezan.

KOMUNIKAZIO KANALAK:

1. Webgune ofiziala

Gure webgunea izango da gure komunikazio-kanal nagusia. Bertan gure produktua aurkeztu eta eskainiko da. Hainbat informazio agertuko da, adibidez produktuaren azalpen teknikoa, funtzionamenduaren deskribapena, segurtasuna, abantailak, araudi-betetzeak, harremanetan jartzeko emaila eta telefonoa... Webgunearen helburu nagusia bezeroak informazioa modu argian jasotzea da eta konfiantza sortzea.

2. Sare sozialak

LinkedIn, Instagram eta TikTok bezalako sare sozialak erabiliko dira. Horrela, gure produktuaren ikusgarritasuna handituko litzateke eta informazioa azkarrago partekatuko genuke, hala nola, berrikuntzak eta eguneraketak. Gainera, beste enpresa eta erakundeekin harremanak sortzea errazagoa izango litzateke.

3. Harreman zuzena

Bezeroek zalantzak argitzeko edo informazio gehiago eskatzeko aukera izango dute email edo telefono bidez. Kanal hau bereziki garrantzitsua da bezeroek zuzenean gurekin harremanetan jartzeko. Horrez gain, email bidez ere berrikuntzak edo eguneraketak jasoko dituzte baimentzen badute.

SALMENTA-KANALAK

1. Salmenta zuzena

Sistema ez da denda arrunt batean salduko, baizik eta salmenta zuzenaren bidez. Bezeroak webgunearen bidez eskaera egin dezake eta aurrekontu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu. Gainera, enpresa edo erakundeekin zuzeneko harremana izan dezakegu ere.

BANAKETA KANALAK



Produktua ez da zuzenean bidaltzen bezeroak instalatzeko, banaketa instalazio profesionalaren bidez egiten da. Teknikari espezializatuak sistema muntatzen dute eta martxan jartzen dute, segurtasuna bermatzeko. Gainera materialak garraiatzeaz instalazio-taldeak arduratzen da, logistikaz eta segurtasunaz arduratzen.

BEZEROAREKIKO HARREMAN-GUNEAK

1. Pertzepzioa

Bezeroak sare sozial, webgune edo publizitate bidez ezagutzen du gure produktua

2. Ebaluazioa

Bezeroak informazioa aztertzen du, segurtasun-ezaugarriak eta prezioak konparatuz. Agian informazio gehiago eskatzen du.

3. Erosketa

Guk egindako aurrekontua onartu ondoren, kontratua sinatu eta instalazioa adostuko da.

4. Entrega

Sistema instalatu, probatu eta martxan jartzen da, bezeroari nola erabili azaltzen da ere. Gainera, momentu honetan emergentzietako zerbitzuekin eta aplikazioarekin konektatzen da atea, ireki dezaten larrialdi egoera batean.

5. Salmenta ondorengoa

Mantentze-zerbitzuak, eguneraketak eta laguntza teknikoa eskaintzen dira, APParen bidezko jarraipenarekin edo emailetik idatziz edota telefonora deituz.